



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Ahozko Handia: murgiltze ereduko
ikasleen estrategia elebidunak eta
gaitasun soziolinguistikoa
indartzeko aukera**

Amaia Rodriguez-Aguirre

61-68 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.07>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Ahozko Handia: murgiltze ereduko ikasleen estrategia elebidunak eta gaitasun soziolinguistikoa indartzeko aukera

Amaia Rodriguez-Aguirre

Universtité Bordeaux Montaigne (IKER UMR 5478) eta Euskal Herriko Unibertsitatea

amaia.rodriquez-aguirre@universite-bordeaux-montaigne.fr

Laburpena

Lan honetan Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleekin Ahozko Handia (AH) proba elebiduna lantzeko Sekuentzia Didaktiko (SD) baten esperimentazioa aztertuko da. Proba hori bi kidez osatutako epaimahai baten aitzinean gauzatzen da: epaimahaikide bat euskal gaietan aditua da eta bestea ez da euskalduna. Gure lanean ikasleek egoera komunikatibo horri erantzuteko behar dituzten gaitasun elebidun eta soziolinguistikoak lantzeko SD elebidun bat diseinatu eta esperimentatu dugu eta ondoko analisisian ikusi dugu ikasleen ekoizpenetan estrategia elebidunak garatuagoak direla eta egoeraren irakurketa osatuagoa dela. Ondorioz, argudiatuko dugu SDak baliagarri direla murgiltze ereduko ikasleek AHn eta egunerokoan beharko dituzten gaitasun elebidun eta soziolinguistikoak lantzeko.

Hitz gakoak: Ahozko Handia, murgiltze eredua, hizkuntzen trataera bateratua, sekuentzia didaktikoak, estrategia elebidunak

Abstract

This contribution will analyze the experimentation of a Didactic Sequence (DS) to prepare the bilingual Basque-French Grand Oral (GO) assessment with students from the only basque immersive high school in Bayonne (Northern Basque Country). The oral assessment is performed in front of a two-member jury: one of the them is an expert in Basque literature whereas the other one does not speak Basque. In order to respond to this complex communicative situation, students need specific bilingual and sociolinguistic skills, that have been treated in the DS. After the experimentation, we have witnessed an increase in students' bilingual strategies and their sociolinguistic awareness. Consequently, we will argue that DS can foster immersion students' bilingual and sociolinguistic skills.

Key words: oral assessment, immersive education, bilingual strategies, integrated language teaching, didactic engineering, Basque language

1. Sarrera eta motibazioa

Ikerketa lan hau abian den doktorego tesi baten¹ baitan kokatzen da eta tesi horren motibazio nagusia Ipar Euskal Herriko (IEH) euskarazko murgiltze ereduaren egungo erronketako batzuk hurbilagotik aztertzea izan da. Hala, euskara ardatz duten beste hezkuntza sistema batzuetan hizkuntzen irakaskuntza eleaniztunari dagokionez egin izan diren lanak IEHko testuingurura ekarri nahi izan ditugu, aldi berean lurralde horren berezko problematika batzuei ere helduz, azterketa ofizialak euskaraz egiteko eskubideen auziari kasu. Tesi horren egitasmoa 2023ko Iker Gazten aurkeztu genuen eta oraingoan esperimentazioaren emaitza batzuk eta ikerketa lan horrek ireki dizkigun bestelako ikerlerroak partekatu nahi genituzke.

Artikulu honetan, beraz, Baionako Bernat Etxepare lizeoko euskara berezitasuneko ikasleekin Ahozko Handi (AH) elebiduna lantzeko esperimentatu dugun Sekuentzia Didaktikoaren (SD) deskribapena eta esperimentazio horrek ikasleen estrategia elebidunetan izan duen eragina izanen ditugu hizpide. Era berean, SD horretan zehar eta bereziki 2024ko AHren testuinguruan agerian gelditu den probaren dimentsio soziolinguistikoa ere aipatuko dugu.

¹ «Lizeoan Ahozko Handia lantzeko sekuentzia didaktiko eleaniztun baten esperimentazioa» 2022tik abian den tesia da, Bordeaux Montaigne Unibertsitateak finantzaturik eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin kotutoretzan.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ikerketa hau euskara ardatz duen didaktika eleaniztunaren baitan kokatzen da. Zehazkiago, hizkuntzen didaktika egoera komunikatiboei erantzuteko helburuarekin eta testu generoetatik abiaturik egiteko proposamenari helduko diogu, Interakzionismo Sozio Diskurtsiboa (ISD) deritzon teoria filosofiko-linguistikoaren aplikazioan oinarrituz (Bronckart, 1996/2022; García Azkoaga eta Idiazabal, 2015). Baina lehenik, gure ikerketaren testuingurua hobeki azaldu nahi genuke.

2.1 IEHko egoera soziolinguistikoa eta murgiltze ereduko ikasleen hizkuntza eskubideak

Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Ipar Euskal Herrian azken hamarkadetan izan duen norabidea ikusita, murgilketa bidezko euskararen irakaskuntza lehentasunezko esparrua da (Casenave eta Idiazabal, 2019; Manterola et al., 2023; Urteaga, 2021). Baieztapen hori indartzeko bi datutan oinarrituko gara. Lehena positiboa da: euskarazko eskolaratzeak familiako eta komunitateko transmisioaren atzerakadari aurre egiten lagundu duela ikusi da (Coyos, 2021; Urteaga, 2021). Esaterako, 2021eko inkesta soziolinguistikoa erakutsi du azken hogeitaz urteetan (2001-2021) gazteen adin tarteetan (16-24 eta 25-34 urte) soilik egin duela gora euskara gaitasunak (EEP et al., 2023). Bigarrena, gutxiago: euskaldunen zenbaki absolutuak egonkortzeko joera badu ere (azken 10 urteetan 400 pertsona gehiago dira euskaldunak eta 1.300 gehiago euskaldun hartzaileak), IEHko kostaldera urtero Frantziako eskualde ezberdinetatik iristen diren biztanle berrien kopuruak azkarrago egiten du gora (3000 pertsona gehiago urtero (OPLB eta Audap, 2024)) eta ikusteko dago horietatik zenbat bilakatuko diren euskal hiztun.

Eskolari dagokionez ere argi-itzalak ikus daitezke: alde batetik, IEHko eskoletan euskarak hezkuntzan orain arteko presentziarik handiena du eta azken hamarkadan etengabe hazi da euskarazko irakaskuntzaren eskaintza, bai eta eredu elebidunak hautatzen dituzten familien kopurua ere (EEP eta Académie de Bordeaux, 2022). Zentzu horretan, Lascanok (2023) aipatzen du IEHko familien %76,7k haien seme alabek euskara ikas dezaten nahi dutela. Alta, gaur egun lurraldeko ikasleen %68k ez du inolako harremanik euskararekin eskola ibilbidean zehar (Erremundegi, 2024; Lascano, 2023).

Testuinguru horretan, Seaska Ikastolen Elkarteak ia 60 urte daramatza Ipar Euskal Herrian euskarazko murgiltze eredu gauzatzen eta egun, Frantziako Hezkunde Nazionalarekin (HN) hainbat akordio baditu ere, Seaskako lizeo bakarreko ikasle gehienek ezin dute oraindik euskara azterketa ofizialetan baliatu. Halere, bada salbuespen esanguratsu bezain zaurgarri bat: euskara literatura eta kultura berezitasuneko ikasgaia hautatzen duten ikasleek aizu dute azterketa batzuetan euskara baliatzea, AHn barne (Ministère de l'Éducation Nationale et de la Jeunesse, 2019, 2020a). Halere, azpimarratzekoa da, kasu horretan euskarari espainoleko edo ingeleseko berezitasunen baldintza berberak ematen zaizkiola, hizkuntza horietako bakoitzak testuinguru soziolinguistikoa eta ikasleen hezkuntza ibilbidean duen lekua aintzat hartu gabe.

2.2 Testu generoen bidezko sarbidea ahozko irakaskuntza eleaniztunean

Aipagai dugun testuingurua bezala, eskolaratze hizkuntzaren erabilera soziala biziki ahula den lekuetan, hizkuntza-praktika erreferentzialak ez dira hain irisgarri (Manterola, 2019) eta horrek erronka didaktiko handiak sortzen ditu. Hau da, IEH-n, euskaraz murgiltze-ereduan eskolatutako ikasleek nekez antzematen dituzte eskolaz-kanpoko euskarazko sozializazio-espazioak.

Horrelako testuinguru soziolinguistiko eta didaktikoetan, ikasleen ahozko gaitasunen garapena eskolaren esku egon ohi da. Alta, gaur egun badakigu hizkuntza gaitasunak ez duela sistematikoki haren erabileraren eragiten eta gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute eskolako lanketaz harago bestelako ahozko adierazpenerako espazioak ere behar-beharrekoak direla (Kasares, 2012; Zabala, 2018). Baina hala ere, eskolak bere ekarpena egin dezake eta horretarako ahozko gaitasunaren didaktikari leku garrantzitsua eman behar litzaioke eskoletan bezala, ikerketan eta irakasleen prestakuntzan ere (Díaz De Gereñu, 2017; Manterola, 2020).

2.3 Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia da ikustea ea testu generoetan eta Hizkuntzen Tratatua (aurrerantzean HTB) oinarrituta sortutako SD batek murgiltze ereduko lizeotarren ahozko gaitasun elebidunak indartzeko balio ote duen. Era berean, SDei Ahozko Handi elebidunaren irakaskuntzak murgiltze ereduko ikasleen prestakuntza soziolinguistikoari egin diezaiokeen ekarpena ere aztertu nahi dugu.

3. Ikerketaren muina

Ahozkoaren didaktikari buruzko ikerketek erakutsi dute testu generoen bidezko irakaskuntza alternatiba egokia dela ahozko hizkuntza-gaitasunak garatzeko. Bide horretan, gure ikerketan ISDtik (Bronckart, 2013, 1996/2022) hizkuntzaren irakaskuntzarako egin den proposamenari jarraituko diogu, sekuentzia didaktikoen (SD) dispositiboari hain zuzen ere. Izan ere, SDei, testu genero baten inguruan antolatutako eskola-jardueren multzo gisa, testuaren baitan eta egoera komunikatiboari loturik landu nahi diren elementuen irakaskuntza sistematikoa egiteko aukera ematen dute (Dolz et al., 2001; Dolz eta Schneuwly, 1998/2016).

Era berean, euskara barne hartzen duten testuinguru eleaniztunetan erakutsi izan da SDen izaera sistematikoari esker hizkuntzak helburu didaktikoen arabera programatu daitezkeela (Dolz, 2019; Manterola eta Aldekoa, 2023). Hala, hizkuntza bakoitzaren diskurtso- eta gramatika-helburuak finkatu eta hizkuntza-txandakatzeko horien arabera programatu daitezke, ikasleen gaitasun linguistikoen hizkuntza arteko transferentziak aktibatzeak. Hortaz, gure ikerketan, Aldekoak (2018) proposatutako ereduari jarraitu diogu eta ariketa gehien-gehienak euskaraz gauzatu ditugu, frantsesa berrikusketa eta indartze ariketetara mugatuz.

3.1 Testu generoa: Ahozko Handi elebiduna

Jarraian gure SDaren oinarrian den testu generoa deskribatuko dugu, Ahozko Handia, alegia. Proba horretan ekoizten dena testu beregain bat da, egoera komunikatibo jakin bati erantzuten diolako eta unitate osoa delako (Bronckart, 1996/2022). Era berean, generotzat jo dugu, ahozko jendaurreko argudiaketa egoera bati erantzuten dion arren, berezkoak diren ezaugarriak ere badituelako, epaimahaiarekin elkarriketa kasu.

3.1.1 Probaren deskribapena

Hala, Ahozko Handia 2021etik indarrean den Baxoko azken azterketa da. Bertan, ikasleek berezitasuneko bi ikasgairen edukietan oinarritutako bi galdera aurkeztu behar dituzte, ahoz, bi kidez osatutako epaimahai baten aitzinean. Probak 20 minutu irauten ditu: lehen 10 minutuetan ikaslea bakarrik mintzo da, aurretik prestatu duen argudiaketa garatuz. Ondoko 10 minutuetan epaimahaiakideek galderak pausatzen dizkiote (Ministère de l'Éducation Nationale et de la Jeunesse, 2020a).²

Berezitasun irakasgaiko hizkuntza frantsesarekin tartekatzeak aukera duten ikasleentzat, hizkuntzen alternantzia eredu bat proposatzen da (Ministère de l'Éducation Nationale et de la Jeunesse, 2020b) eta epaimahaiaren galderetan ere bi hizkuntzak baliatzen dira. Izan ere, kideetako bat euskara berezitasunean aditua izaten da eta bestea aldiz berezitasuneko gaia eta hizkuntza menperatzen ez dituen beste irakasle bat. Hizkuntza banaketa horren ondorioz, ikasleak landu dituen gaiak eta erreferentziak frantsesera egokitu eta itzultzeko aukera aurreikusi beharko du. Hizkuntzen erabilera hobeki irudikatzeko, hona hemen testu generoaren atalak eta atal bakoitzerako gomendatutako hizkuntza:

2 Ahozko Handiari buruz gehiago jakin nahi izanez gero hona hemen gure aitzineko lanak: Manterola & Rodriguez-Aguirre, 2024; Rodriguez-Aguirre et al., 2024.

1. irudia. Ahozko Handi elebidunaren atalak eta hizkuntzen erabilera

	Atalak	Iraupena	Gomendatutako hizkuntza
	Ikaslearen argudiaketa	10 min	
	Hitza hartzea		Elebidunean
Irekidura	Hizkuntza alternantzia esplizitatzea		FR
	Planoaren aurkezpena		FR
Argudiaketaren garapena			EU
	Ondorioa		EU edo/eta FR
Itxiera	Epaimahaia eskertu eta galderetarako prestatzea		Elebidunean
	Elkarriketa epaimahaiarekin	10 min	EU / FR

Halere, dimentsio linguistikoaz harago, egoera komunikatibo horrek zenbait elementu soziolinguistiko ere barnebiltzen ditu. Horiek azaltzeko, 2024ko AHn jazotako gertakari batzuk aipatu nahi genituzke.

3.1.2 Probaren dimentsio soziolinguistikoa


Testuinguru orokorra honakoa da: 2023-2024 ikasturtean "Azterketak Euskaraz" kolektiboak kanpaina bat abiatu zuen Ahozko Handia pasako zuten ikasle euskaldunei, edozein berezitasun zutelarik ere, azterketan zehar euskara baliatzeko aukera emateko asmoz: epaimahaietan egongo ziren irakasle euskaldunek "Ahobizi" txapa jantziko zuten, hala ikasle bakoitzak txapa ikusten zuelarik euskara lasaitasunez baliatzeko aukera izan zezan. Kanpaina publikoki aurkeztu zen (Etxeberri Lopepe, 2024). Bereztasuneko irakasleen testigantzen arabera, azterketa egunean Hezkunde Nazionalak epaimahaietan egongo ziren irakasleei oroitarazi zien, indarrean zegoen araudiaren arabera AHn frantsesa baino ezin zela baliatu, bereztasuneko hizkuntzen kasuan izan ezik. Alta, Bernat Etxepareko euskara bereztasuneko ikasleak AH gauzatzera joan zirelarik, epaimahaikide batek galarazi egin zien azterketan zehar euskara aurreikusi bezala baliatzea. Haien irakasleek egoera "traumatikoa" bezala kalifikatzen dute, indarkeria instituzionala bizi izan zutela argudiatzen dute eta salatzen dute beste hizkuntza-bereztasuneko ikasleekin alderatuta desabantaila handiak bizi izan zituztela.

Diskriminazio egoera hori deskribatu nahi izan dugu SDan aintzat hartu genuen elementu bat indartzeko: AHn euskara baliatzeak berak gaitasun elebidunez gain, gaitasun soziolinguistikoak mobilizatzea ere eskatzen du. Izan ere, frantziar azterketa ofizial batean hizkuntza gutxitu bat erabiltzeko ariketaz ari garelarik, kontrabotere-ariketa bat gertatzen dela argudia dezakegu. Hori azaltzeko "herritartasun soziolinguistikoa" (Stroud eta Kerfoot, 2021) ikuspegia baliatuko dugu. Haren arabera, hizkuntza gutxituetako hiztunek dagozkien hizkuntza eskubideak betearazteko, haien baitarik ekin behar lukete, instituzioen zain egon ordez. Kontzeptu hori integratzea interesgarri iruditzen zaigu, iruditzen zaigulako murgiltze ereduko ikasleek Ahozko Handian bizi ditzaketen esperientziei aurre egiteko tresnak garatzea lagungarri gerta dakiekeela, haien egunerokoan bestelako egoera komunikatiboetan ere ahalduzko.

3.2 Sekuentzia didaktikoa

Dagoeneko aipatu dugunez, gure ikerketaren metodologia Ahozko Handi elebiduna testu generoaren irakaskuntza gauzatzeko diseinatutako Sekuentzia Didaktiko baten esperimentazioa izan da. Dispositibo didaktiko hori HTBren (Troncy, 2014) eta Ingeniaritza Didaktikoaren oinarriari jarraituz diseinatu genuen (García Azkoaga eta Idiazabal, 2015) eta 2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetan gauzatu zen Seaskaren Baionako Bernat Etxepare Lizeoan, euskara bereztasuneko ikasle taldearekin (20 ikasle). Azpiko irudian sekuentziaren eskema antzemanen duzue eta jarraian atal ezberdinen deskribapena egiten dugu:

2. irudia. Sekuentzia Didaktikoaren eskema.



Lehen urratsa lizeoko irakasleekin adostutako testuinguratzeko saio bat egitea izan zen. Bertan ikasle talde osoari AHren adibide bat erakutsi genion, haiek dagoeneko ezagutzen zuten problematika baten inguruan eta gelan landuak zituzten adibide literarioekin hornitua. Ondotik, ikasle bakoitzari adibidean jasotako antzeko AH bat gauzatzeko eskatu genien, egiazko azterketako baldintzetara ahalik eta gehien hurbilduz.

Ekoizpen horiek bideoz filmatu genituen eta xeheki transkribatu, gero testu horien analisi diskurtsiboa eta gramatikala egiteko. Anartean, testu generoaren karakterizazioa egin genuen, antzeko testu generoetan (Dolz eta Schneuwly, 1998/2016), HNren testu preskriptiboetan eta irakasleen esperientzian oinarriturik. Hau da, testuaren atala ezberdinak bereizi genituen eta atal bakoitzean ikasleek dagoeneko baliatzen zituzten elementu linguistikoak identifikatu genituen. Era berean, irakasleen testuetan antzemandako hobetzeko elementuak identifikatu genituen eta gaitasun eleaniztunak hobetzeko ariketak diseinatu eta moduluetan (jarduera multzoetan) antolatu genituen. Ariketa horietan hizkuntzen alternantzia kudeatzeko pistak landu genituen: agurrean erabilitako hizkuntza, planoaren aurkezpena, erreferentzia literarioen aipamena eta egokitzapena, etab. Hala, Sekuentzia euskaraz gauzatu genuen, baina betiere euskara eta frantsesa noiz, nola, zergatik eta zertarako erabili irakasleekin hausnartuz eta ikasle bakoitzak bere gaitasunak frantsesera transferitzeko momentuak programatuz (Aldekoa, 2018).

Jarraian ikasle taldea bi azpi-taldetan banatu genuen, irakasleen laguntzaz eta moduluak talde esperimentalarekin (10/20) landu genituen, talde kontrolak eskola arruntekin segitzen zuen bitartean. Ondotik, talde osoak (20) berriz ekoitzi zuen AH eta emaitzetan ikusiko dugunez, bukatzeko ondo-testuen azterketa diskurtsiboa egin genuen, alderaketa eginez taldeen artean eta talde bakoitzaren hasierako testuekin.

3.3 Emaitzen analisiak

Analisiaren atalean, ikasleek ekoiztutako aurre-testuen eta ondo-testuen kontrastea izango dugu aipagai. Luzera mugak direla medio, bi estrategiatan jarriko dugu fokua.

3.3.1 Hitzartzea

Hitzartzea momentu garrantzitsua da jendaurreko ahozko testu genero formalean, izan ere, hizlariak entzulearekin harremana hasi eta bere zilegitasuna azpimarratzen du momentu horretan (Dolz eta Schneuwly, 1998/2016). Ahozko Handiaren kasuan, momentu horretan hizkuntzen baliapena finkatzeko parada ageriko da.

1. taula. Hitzartzean baliatutako formulak

Hizkuntza	Talde esperimentalak (/10)		Talde kontrola (/8)	
	Aurre-testua	Ondo-testua	Aurre-testua	Ondo-testua
Frantsesa	5	1	4	1
Euskara	1	1	3	0
Elebiduna	0	6	2	2

Emaitzei erreparatuta, ondo-testuei dagokienez ikusten dugu nola talde esperimentalean gehiago izan diren epaimahaia agurtu duten ikasleak talde kontrolean baino. Baliatu dituzten formulei dagokienez, talde esperimentalean gehiago izan dira agur elebiduna erabiltzeko hautua egin dutenak talde kontrolean baino. Kasu guztietan baliatutako formula elebiduna “*egun on, bonjour*” izan da. Era berean, frantsesez agurtzen duten ikasleen kopurua gutxitu egin da bi taldeetan. Pentsa daiteke aldaketa horretan eragina izan duela SDko 2. moduluan atal honen inguruan egin genuen hausnarketak. Izan ere, ikasleekin hitzartzea euskaraz, frantsesez edo elebidunean egiteak epaimahaiarekiko sor ditzakeen konplizitate eta erresistentziak aipatu genituen.

3.3.2 Elkarrenergina prestatzea

Aurre-testuen analisia egin genuelarik ohartu ginen ikasleek ez zituztela epaimahaiak egingo zizkien galderak aurreikusten. Alta, elkarrenergina aurreikusiz gero, hizlariak galdera horien norabidea aitzinatzen saia daiteke. Teknika horri “amua(k)” botatzea deitu diogu gure SDan zehar epaimahaikide bakoitzari zuzendutako “amu” ezberdinak landu genituen: euskararen berezitua den irakasleari termino batzuetan sakontzeko proposamenak egitera gonbidatu genituen ikasleak. Epaimahaikide frantsesdunaren kasuan ordea, euskarazko terminoen itzulpena edo azalpena eskatzeko gomita egiteko aukera aipatu genuen, besteak beste. Ondoko taulan talde bakoitzeko ikasleek baliatutako “amuak” bilduko ditugu:

2. taula. “Amuen” erabilera

Hizkuntza	Talde esperimentalak (/10)		Talde kontrola (/8)	
	Aurre-testua	Ondo-testua	Aurre-testua	Ondo-testua
Frantsesa	0	7	0	3
Euskara	0	3	0	0

Ikusten dugu nola talde esperimentalaren ondo testuetan “amuen” baliapena nabariagoa den. Halere, nabarmendu nahi genuke talde kontrolaren kasuan ere, zenbait ikasleek baliatu dituztela, nahiz eta SDa ez landu. Talde kontroleko hiru “amuen” kasuan definizioak eman zituzten ikasleek eta gure hipotesia da, bestelako berezitasun gaietan ere antzeko lanketa bat egin dela.

Talde esperimentaleko amuei dagokienez, anitzagoak dira: 6 kasutan definizioak eman dituzte eta beste 4 kasutan berriz, terminoetan sakontzeko gonbidapena luzatu diote epaimahaiari. Hona hemen bi adibide:

- 1) Euskaraz: “(...) honen inguruan gehiago hitz egin nezake, oso gertukoa baitut.”
- 2) Frantsesez: “*Si vous voulez que je traduise les documents, je pourrais y revenir ensuite.*” (dokumentuak itzultzea nahiko bazenu, geroago egin nezake)

Era berean, ikusten dugu frantsesez “amu” gehiago baliatu dituztela. Horrek bi hausnarketa sorrarazi dizkigu: batetik, lanketa euskaraz egin dela jakinik, ikusten dugu ikasleek “amuen” kontzeptua eta erabilera frantsesera transferitu dituztela. Bestetik, badirudi ikasleek indar handiagoa egin dutela epaimahaikide ez euskaldunaren arreta bereganatzeko eta iruditzen zaigu horrek bi epaimahaikideekiko distantzia ezberdin bat isla lezakeela.

4. Ondorioak

Artikulu honetan erakutsi nahi izan dugu testu-genero esanguratsuetan oinarritutako dispositibo didaktikoei murgiltze ereduko ikasleen gaitasun eleaniztunak eta soziolinguistikoa hobetzeko ekarpena egin dezaketela (Aldekoa et al., 2020; García Azkoaga & Idiazabal, 2015).

Eta iruditzen zaigu tresna horiek baliagarri izan daitezkeela ikasleengan herritartasun soziolinguistikoa sustatzeko, haien hizkuntza-eskubideen defentsan parte hartze aktiborako gaitasuna indartzeko gisan.

Era berean, saiatu gara erakusten AH bezalako probak, murgiltze-testuingurura aintzat hartu gabe sortuak izan badira ere, egokitu egin daitezkeela eta haien prestakuntzan frantsesaren tokia irizpide didaktiko eta soziolinguistikoei erreparatuz programatu daitezkeela. Izan ere, gure SDaren emaitzek bere xumetasunean erakutsi dute bi hizkuntzetako gaitasunak batera garatzen direla, eta euskararen egindako lanak frantseseko ekoizpenetan ere eragina duela. Halaber, ikasleen kontzientzia soziolinguistiko kritikoaren garapena antzeman dugu (Ortega, 2024).

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Azterketa ofizial elebidun batean hizkuntza gutxitua erabiltzeak ekar ditzakeen ondorio didaktiko eta soziolinguistikoa aztertzen hasi besterik ez gara egin. Etorkizunean, bide horretan ikertzen segi nahi genuke, murgiltze ereduko ikasleekin antzeko egoera komunikatiboak hobeto kudeatzeko estrategiak landu eta egoera horietan zein hizkuntza eta nola baliatu nahi duten erabakitzeak kontzienteago izan daitezen.

6. Erreferentziak

- Aldekoa, A. (2018). Gure ikastola en tres languages: The teaching and learning of oral expository skills by means of didactic sequence. *Theory and Practice of Second Language Acquisition*, 4(2), 73–92.
- Bronckart, J.-P. (2013). Una didáctica de las lenguas para una enseñanza bilingüe. In I. Idiazabal & J. Dolz (Arg.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües* (or. 31–50). EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Bronckart, J.-P. (1996/2022). *Activité langagière, textes et discours: Pour un interactionisme socio-discursif*. Lambert-Lucas.
- Casenave, J., & Idiazabal, I. (2019). La formation des enseignants de basque du système immersif. Aborder l’approche communicative pour l’enseignement bilingue par immersion à travers des séquences didactiques basées sur les genres textuels. In B. El Barkani & Z. Meksem (Arg.), *Pladoyer pour la variation. Mélanges en hommage à Marielle Rispail*. (EME éditions, or. 173–197).
- Coyos, J.-B. (2021). Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun ipar euskal herrian: Hizkuntza-bizindarra. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 118, 11–25.
- Diaz De Gereñu, L. (2017). Eskola bidezko euskararen biziberritzea: Arrakastarako balditzak aztergai. In X. Landabidea, J. Goirigolzarri, & I. Manterola (Arg.), *Euskararen biziberritzea: Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (or. 101–126). UEU.
- Dolz, J. (2019). La règle du sept de la sociodidactique des langues. In B. El Barkani & Z. Meksem (Arg.), *Pladoyer sur la variation. Mélanges en hommage à Marielle Rispail* (EME éditions, or. 21–49). Caen. <http://archive-ouverte.unige.ch/unige:116535>
- Dolz, J., & Gagnon, R. (2008). Le genre du texte, un outil didactique pour développer le langage oral et écrit. *Pratiques*, 137–138, 179–198. <https://doi.org/10.4000/pratiques.1159>
- Dolz, J., Noverraz, M., & Schneuwly, B. (2001). S’exprimer en français: Séquences didactiques pour l’oral et pour l’écrit: Libk. Vol. 1: 1ère, 2e. De Boeck.
- Dolz, J., & Schneuwly, B. (1998/2016). Pour un enseignement de l’oral: Initiation aux genres formels à l’école (6e éd). ESF éditeur.
- Erremundegi, E. (2024, abenduak 7). Ipar Euskal Herriko ikasleen %67k ez dute harremanik euskararekin. Berria.
- EEP, Eusko Jaurlaritzak, & Nafarroako Gobernua. (2023). VIIème enquête sociolinguistique présentation des résultats du Pays Basque ord. Euskararen Erakunde Publikoa.

- García Azkoaga, I. M. eta Idiazabal, I. (Eds.). (2015). *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Universidad del País Vasco.
- Lascano, B. (2023). The basque language in education in France. Mercator-European Research Centre on Multilingualism and Language Learning.
- Manterola, I. (2019). A study of recipes written by basque L2 immersion students: Any evidence for language revitalization? In N. Yiitolu & M. Reichelt (Arg.), *L2 Writing Beyond English* (or. 117–134). Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781788923132-010>
- Manterola, I. (2020). Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: Berrikuntza didaktikoa eta soziala? In E. Santazilia Salvador (Arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpak berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua* (or. 405–420). Gobierno de Navarra. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.26>
- Manterola, I., & Aldekoa, A. (2023). Expérimentation d’une séquence didactique trilingue en contexte immersif en basque: Des éléments pour un dialogue avec la règle du sept de la sociodidactique des langues. *Calidoscópico*, 21, 21–41. <https://doi.org/10.4013/cld.2023.211.02>
- Manterola, I., & Rodríguez-Aguirre, A. (2024). Basque-french “Grand Oral” assessment in basque immersion education: Analysis of high school students’ bilingual strategies. *Emerging Issues in Content-Based Minority Language Immersion Education Contexts*, 13(1), 55–75. <https://doi.org/10.1075/jicb.24005.man>
- Mediabask. (2024, irailak 30). Grand Oral en euskara: L’académie de Bordeaux ouvre une enquête.
- Ministère de l’Education Nationale et de la Jeunesse. (2019). Programme de langues vivantes de seconde générale et technologique, enseignements commun et optionnel. <https://eduscol.education.fr/1726/programmes-et-ressources-en-langues-vivantes-voie-gt>
- Ministère de l’Education Nationale et de la Jeunesse. (2020a). Épreuve orale dite « Grand Oral » de la classe de terminale de la voie générale à compter de la session 2021 de l’examen du baccalauréat. <https://www.education.gouv.fr/bo/20/Special2/MENE2002780N.htm>
- Ministère de l’Education Nationale et de la Jeunesse. (2020b). Grand Oral et enseignements de spécialité. Baccalauréat général. Langues, littératures et cultures étrangères et régionales (LLCER). <https://eduscol.education.fr/document/3913/download?attachment>
- OPLB, & Audap. (2024). Perspektiba soziolinguistikoak: Euskara 2050eko epemugan Ipar Euskal Herriko euskaldunen estimazioa eta 2050eko epemugaren perspektiban jartzea.
- Ortega, A. (2024). Hitzazurre gisa. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 2(131), 7–13.
- Rodríguez-Aguirre, A., Casenave, J., & Olcomendy, A. (2024). Le Grand Oral en modalité bilingue basque-français: Une opportunité pour améliorer les compétences plurilingues des élèves scolarisés dans le système d’immersion linguistique ? In Mugarteko ingurumena: Aldaketa klimatikoa, hezkuntza-testuinguruak eta erronka digital berriak. (or. 133–155). <https://doi.org/10.46608/schola4.9782353110025>
- Stroud, C., & Kerfoot, C. (2021). Decolonizing higher education: Multilingualism, linguistic citizenship and epistemic justice. In *Language and Decoloniality in Higher Education* (or. 19–46). <https://doi.org/10.5040/9781350049109.ch-002>
- Urteaga, E. (2021). Irakaskuntza elebiduna ipar euskal herrian: Ahulguneak eta indarguneak. *Euskera*, 66, 211–246.
- Zabala, J. (2018). Ahozko komunikazioa irakastea: Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia).

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrik beroenak doktorego tesiko urrats bakoitzean sustengatzen nauten Ibon Manterola eta Jean Casenave zuzendariei. Mila esker era berean Lizeoko irakasleei eta zuzendaritzari lankidetzarako prestutasunagatik.

Bukatzeko, eskertu nahi ditut tesia burutzeko doktorego kontratua eskaini didan Bordaleko Maigne Unibertsitatea eta nire ikerketa urrunago joateko bultzada eman didan Eusko Ikaskuntzaren ikerketa sustatzeko eta babesteko programa.